

1. atala: HIZKUNTZEN MUNDUA

Izaro eta Kike Londresera joango dira munduko eta Europako hizkuntzen inguruko informazio bila, eta bertan bizi diren euskaldunen, eta bertoko herritarren iritziak jasotzera,



Dylan Inglis Bristoleko gazte poliglota euskara nola eta zergatik ikasi zuen azalduko dio Izarori. Orain Edinburgoko unibertsitatean euskara irakaslea da. Baina ez du euskara estandarra bakarrik menderatzen, bizkaieraz eta zubereraz ere moldatzen baita. Euskarak zer eman dion adieraziko du eta hizkuntza ez hegemonikoak zergatik babestu eta bultzatu behar diren.

Londresen 7 milioi pertsona inguru bizi, eta bertan **300 hizkuntza baino gehiago** hitz egiten dira. Lautik hiruren hizkuntza nagusia ingelesa den arren, bi milioiren kasuan beste bat da. Auzoen arabera, poloniera, urdua, punjabera edo lituaniera izan daiteke.

Londres, bestalde, hiri garrantzitsua izan da euskararen historian. Besteak beste, Luis Luziano Bonaparte printzeak, Napoleon Bonaparteren ilobak, bertan argitaratu zuen Euskal Herriko zazpi herrialdeetako euskalkien mapa 1863an, **Stanford's Geographical Stablishment** mapa-argitaletxean. Establezimendua oraindik zabalik dago eta Kikek bisitatu egingo du. Izarok, bitartean, ea euskara Europako zein eremutan hitz egiten den galdetuko du Londresko kaleetan, erantzun harrigarriak jasoz.

Elin Haf Jones galestar euskalduna elkarrizketatuko du Kikek, baina aurretik jakingo dugu Argentinako Patagonian, badela, galesari eutsi dion komunitate aktibo bat. Elin, ELEN erakundearen presidentea da (European Language Equality Network). Hizkuntzen berdintasunaren alde lanean ari den erakunde honek 175 bat elkarte eta erakunde biltzen ditu, 50 bat estatutako 25 bat hizkuntza ordezkatzuz. “Lobby” lana egiten dute Europako erakundearen eta hainbat administrazioaren aurrean, eta haien lanaren zergatia xehetuko digu Elinek.



Babelgo dorrearen mitoa ekarriko da hizpidera saioan. Batzuen ustez, Jainkoak gizakiak zigortzeko sortu zituen hamaika hizkuntza, baina beste batzuen ustez, eleaniztasuna, gizakiak gehiegizko boteretik babesteko sortu zuen.

Babelgo dorre erraldoia den Londresen bizi da **Garazi Goia** idazlea, ikus-entzunezkoetan aditua eta nazioarteko aholkularia. Euskara bezalako hizkuntzek hedabideen esparruan duten erronka, eta gurea bezalako hizkuntzentzat ikus-entzunezkoen esparruak duen garrantzia nabarmenduko ditu. Bestalde, Euskal Herritik kanpo, euskara seme-alabei nola transmititu dakiekeen azalduko du, bere esperientzia pertsonalean oinarrituta.

Ingelesa nagusi den hiri batean, herritarrek ba al dakite beste hizkuntzarik? Lehen hizkuntza ingelesa izateak ba al du eraginik? Horixe da Izarok burutuko duen kale-inkestaren gaia.



Kikek, **Jon Sindreu**, ekonomia-kazetaria eta “**The Wall Street Journal**”-eko zutabegilea elkarrizketatuko du. Bera katalana da, eta duela urte asko bizi da Londresen. Ama euskaldun berria du, eta euskara berreskuratu duenez, saioari euskarazko bere lehen elkarrizketa eskainiko dio. Ekonomia globalizatuaren mundu honetan, hizkuntza gutxituek duten leku txikiaz mintzatuko da, eta euskara erabili beharraren

garrantziaz, merkatu bat sortze aldera eta eragile ekonomikoek aintzat har gaitzaten.

Izarok, bestalde, Big Benen parean dagoen **The National Covid Memorial Wall**i buruzko argibideak 23 hizkuntzatzen agertzen direla eta horietako bat euskara dela deskubrituko du. Euskara da, gainera, denen artean, estatu-hizkuntza ofiziala ez den bakarra.

Han elkarrizketatuko du **Ali Robinson**, **Ethnologue** erakundeko ordezkaria. Erakunde honek munduko hizkuntzen jarraipena egiten du eta sailkatu egiten ditu. Haien arabera, **7.159 hizkuntza daude**. Milioi bat hiztun baino gehiago dituztenak 456 dira, eta horien artean dago euskara. **Ethnologuek** hizkuntzak sailkatzeko 0tik 10erako eskala bat darabil eta **euskara 2. balioan** legoke, hau da, eskualde mailako ofizialtasuna duten hizkuntzen artean. Aliren ustez, munduko hizkuntzei erreparatuta euskararen biziberritze-prozesua gutziz ezohikoa da.

Saioa amaitzeko, Izaro eta Kike, **Bea Asurmendi** abeslariarekin eta **Mikel Acosta Hegoa diskak**-en sustatzailearekin elkartuko dira. Mikelek, euskal musika esperimentala zabaltzeko disko-zigilu bat sortu du Londresen eta Beak, bestelako ekinbideez gain, bere proiektu musikala ere Londrestik garatzen du. Biek aitortuko digute Londres hiri irekia dela, eta badagoela interesa beste hizkuntzetan egindako musikarekiko.

